


# SARRIKO

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

Facultad de Economía y Empresa



# 2023

32.ZK.



AGENDA  
2030



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL



## FAKULTATEKO DEKANO TALDEA

**Jon Barrutia Güenaga**

Dekanoa

**Henar Díez Sánchez**

Ekonomia eta Enpresa  
Fakultateko Idazkaria

## DEKANOAREN TALDEA (EGOITZA)

**Izaskun Ipiñazar  
Petralanda**

Egoitzako Dekanorde  
Kordinatzailea eta Gizarte,  
Etengabeko Prestakuntza  
eta Enpresa Harremanetako  
Dekanordea

**Jon Charterina Abando**

Nazioarteko Harremanetako eta  
Mugikortasuneko Dekanordea

**Javier García Enríquez**

Akademi Antolakuntzako  
Dekanordea

**Unai Tamayo Orbegozo**

Euskara, Ikasleen eta  
Enplegarritasuneko  
Dekanordea

**Javier Corral Lage**

Kalitateko, Ikasketa  
Berrikuntzako eta  
Ekintzailtzako Dekanordea

**Elena Martínez Tola**

Graduondoko Dekanordea

# Aurkibidea

**2021-2022 Promozioaren Graduazioa** 4

**Jarduerak** 5

**Jardunaldiak, Kongresuak eta Mintegiak** 9

**Elkarlana Ekonomistakekin** 13

**Enpresekiko harremana** 14

**Sariak, aitorpenak eta izendapenak** 17

**Ekonomiako Nobel saria** 22

***“Europako testuinguru berriak honako hauek eskaintzera eraman gaitu: prestakuntza duala, nazioartekotzea sendotzea eta hedatzea, gero eta berritzaileagoa den prestakuntza, eta posizionamendu ikertzaile liderra. Sarriko eraldaketa handi honetarako prestatuta dago, pilotutako esperientzia zabalari esker Ekonomia eta Enpresa arloetan erreferentea delako eta gizarteari zerbitzua emateko bokazioa duelako”.***



**Jon Barrutia Güenaga**

Joan den urtea, 2023a, pandemiaren ondorengo joerak eta jarduteko moduak finkatzeko aldia izan dela esan dezakegu, bai irakasleen ikuspegitik, bai ikasleen ikuspegitik. Horrez gain, lege eta erakunde mailako beste ekimen batzuk ere izan dira: LOSU (Unibertsitate Sistemari buruzko 2/2023 Lege Organikoa, 2023ko martxoaren 22koa) eta Unibertsitate Plana (2023ko maiatzak 30). Horiek guztiak unibertsitateko ekosistemaren lehentasunak eta jarduteko ildo berriak finkatu dituzte.

Horrekin lotuta, onlineko baliabideen erabilera nabarmen ari da hazten, eta irakaskuntza presentziala bera ere gauzatzeko eta aintzat hartzeko modu berriak hartzen ari da.

Onartutako legeak berritasun garrantzitsuak jasotzen ditu honako hauekin lotuta: irakasleak, gobernantza, ikasleak, praktikak eta abar. Aldaketa horietara egokitzeko, antolaketa ahalegin handia egiten ari gara eta horrek ondorioak izan ditu fakultatearen eraginkortasunean eta eragingarritasunean.

23-26 Unibertsitate Planak erakunde mailako harreman esparrua finkatzen du eta horren ildo nagusia “berritze estrategikoko testuingurua” da. Berritze lan horrek garai berrietara egokituta dagoen unibertsitatea eratzeko oinarriak sortu nahi ditu eta helburu hori du. Eta, garai horien ezaugarri nagusia da, hain zuzen ere, hiru trantsiziori (digitala, ingurumenekoa eta demografikoa) aurre egin behar zaiela. Horretarako, Planaren ildoak Jaurlaritzaren plan ugarirekin lotu ditu eta horien artean hauekin bereziki: ZTBP 2030, Unibertsitatea + Enpresa Euskal Estrategia, Ikur 2030...

Planak Euskadiko unibertsitate ekosistema indartzeko ideia lehenesten du, eta honako hauek bultzatu: ekitatea eta berdintasuna, nazioartekotzea, euskara eta ikerketaren bikaintasuna. Zehar lerro gisa, jakintzaren transferentziatik abiatuta gizartearekin etengabeko harremana izatearen ideia erakusten da; horrez gain, arreta nagusia berrikuntzak eta prestakuntzak eta talentua erakartzeak eta atxikitzeak izango dute.

Baina ezin dugu albo batera utzi Europako testuingurua ere; izan ere, Goi mailako Hezkuntzako Europako Esparrua eta Ikerketako Europako Esparrua garapen betean daude eta horrek oraindik argitu ez diren kontraesanak eta aldi berean aukerak (Erasmus+, Enlight,...) sortzen ditu. Horietako bat da, hain zuzen ere, Bolognako planarekin bat egindako herrialdeetan ezarritako gradua gehi masterraren konfigurazio ezberdina.

Zehatzago esanda, aipatutako testuinguru berriak honako hauek eskaintzera eraman gaitu: prestakuntza duala eta Lanbide Heziketarekiko lankidetzaren indartzea, eta nazioartekotzea sendotzea eta hedatzea, gero eta berritzaileagoa den prestakuntza, doktorego tesi industrialak eta nazioarteko aipamena dutenak, eta Ekonomia eta Enpresa arloetan liderra den posizionamendu ikertzaile liderra.

Horrek guztiak finkatu ditu hurrengo urteotan (hasi berria dugun 2024 urtetik abiatuta) gure fakultateak gainditu beharko dituen erronkak. Gainera, ezin dugu ahaztu gure fakultatean belaunaldi mailako trantsizioak (erretiroak eta kontratazio berriak) sekulako gaurkotasuna duela eta sartzen diren ikasle berriak digitalizazio maila altuko hezkuntza sistematik datozela.

Sarriko eraldaketa/trantsizio handi honetarako prestatuta dago pilotutako esperientzia zabalari eta duela gutxi lortutako akreditazio instituzionalari esker. Baina ezin da bestela izan, ekonomia eta enpresa arloetan erreferentea delako eta gizarteari zerbitzua emateko bokazioa duelako.

# 2021-2022 promozioaren graduazioa



Martxoaren 28an, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (Sarriko) Areto Nagusian, **21-22 promozioaren graduazio 63. ekitaldia** egin zen. Promozioaren aita-bitxia **Mikel Etxebarria** izan zen, Erromako Klubeko Espainiar Kapituluako Euskal Taldearen koordinatzailea.

Normaltasunera itzultzeak, pandemiaren ondoren, ikasle, irakasle eta senideak ekarri zituen Sarrikora, egresatu berriei diplomak emateko zeremonia egiteko.

Mikel Etxebarria Erromako Klubeko Espainiar Kapituluako Euskal Taldearen koordinatzailea, Eva Ferreira UPV/EHU errektorea, Jon Barrutia Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanoa, Miren Artaraz Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria eta Cristina Andrés Ekonomisten Euskal Elkargoko Bizkaiko presidentea.



# Erronka on! Sarriko Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren alde

Seminar Series mintegiek diziplina anitzeko komunikazioa eta elkarrekintza erraztu dute, 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen bidez jasangarritasuna lantzen duten ikasgelen esperientziak partekatuz.



Ekonomia eta Enpresa Fakultateak (EEF) Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren (GJH) aldeko apustua egin du gradu bakoitzean, gure egresatuak gizarte jasangarriagoak eratzeko aldaketa eragile potentzialak izan daitezzen. IKDI3 Laborategiaren esparruan, **Erronka on! proiektuak** irakasle talde handi bat bildu du (sail guztietan ordezkartza duten irakasleen % 26,5), EEFn GJH bultzatzeko hainbat ekintza bultzatu dituztenak.

**Seminar Series** mintegiek diziplina anitzeko komunikazioa eta elkarrekintza erraztu dute, 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen bidez ja-

sangarritasuna lantzen duten ikasgelen esperientziak partekatuz. Esperientziak parte hartu duten diziplina desberdinek erabilitako aberastasun metodologiko handia erakutsi du, nahiz eta agerian utzi duen koordinazio handiagoa behar dela eraginkortasuna indartzeko. Maila kolektiboan, **Sarriko, zero hondakinak! erronka** jarri da abian, ikasleak Fakultatearen ingurumen jasangarritasunarekiko konpromisoan inplikatzuz.

Aldi berean, [UNESCOK \(2017\)](#) zehaztutako **GJHrako gaitasunetatik** abiatuta, [UPV/EHUko Zeharkako Gaitasunen Katalogotik \(2019\)](#) hautatuziren Ekonomia eta Enpresako ikasketetara gehien egokitzen ziren ikaskuntza emaitzak, eta [hiru jarduera mailatan \(oinarrizkoa, ertaina eta aurreratua\)](#). Aurreko urrats hori funtsezkoa da, jasangarritasunerako gaitasunen koordinazioa eta ezarpena errazteko. Halaber, oinarri izan dira lehen mailako ikasle eta irakasleei zuzendutako inkesta bat egiteko, gaitasun horiek eskuratzera bideratutako hezkuntza ekintzen eragina neurtzeko.

Erronka on! proiektuak, halaber, konpromiso aktiboa erakutsi du Goi Mailako Hezkuntzan ikerketa partekatze eta Ekonomia eta Enpresa ikasketak Jasangarritasunarekin lerrokatze esperientziak partekatze [Journal and Business Education](#) aldizkarian argitaratutako **“Enpresaren Ekonomia Jasangarritasunerako Hezkuntza: erronkak eta esperientziak” special issues-ek** horren erakusgarri ona ematen dute.

Azken batean, “Erronka on” ezartzea erronka handia izan da irakasleentzat, jasangarritasunaren arloan gure fakultatean ematen diren graduen indarguneak eta ahuleziak detektatzeko aukera ematen baitu. Proiektuak diziplina arteko lankidetzaren bidez ahalbidetu du, gure ikasleentzat ikaskuntza eraldatzailea lortzera bideratuak. Bide luzea dugu aurretik... erronka hasi besterik ez da egin!

Elena Catalán

# Generoko soldata arrakala unibertsitatean

Kristalezko labirintoa existitzen da, oztopo gutxi gorabehera ikusezinak dituen sistema bat, emakumeen ibilbide akademikoan zehar irakaskuntza eta ikerketa karrera geldiarazten duena.



Elena Martínez Tola txostenaren aurkezpenean Unibertsitate Ministerioan, ekainaren 13an, Madrilan.

**Elena Martínez Tola** irakasleak koordinatutako talde batek, non **Aitziber Etxezarreta eta M<sup>a</sup> Luz de la Cal** Ekonomia Aplikatua Saileko beste bi irakaslek ere parte hartu duten, **Espainiako 48 unibertsitate publiko-eta**ko irakasle eta ikertzaileen (IRI) arteko **generoko soldata arrakalari** buruzko **lehen txostena** egin du. Ikerketa hori Unibertsitate Ministerioak, Espainiako Unibertsitate Errektoreen Biltzarrak (CRUE) eta Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) bultzatu dute.

Batez beste, gizonen eta emakumeen urteko ordainsari gordinen arteko aldea, gizonen soldatari dagokionez, estatu osoan % 12,7koa da, eta UPV/EHUn % 9,4koa. Soldata arrakala horren zatirik handienaren jatorria ordainsari osagarrietan dago: % 19,1 Espainiako unibertsitateetan eta % 23,4 gurean. Eta bereziki nabarmena da seiurtekoetan (% 28,6 batez beste, % 35,6 UPV/EHUn) eta ikerketa proiektuetan (% 47,3 batez beste eta % 42,2 UPV/EHUn).

Emitza horiek azaltzeko, txostenak planteatzen du segregazio horizontala –emakumeen gehiengo Osasun Zientzietan eta Arte eta Giza Zientzietan, Ingeniaritza eta Arkitekturan laurden bat pasatxo–, segregazio bertikala –katedren % 73 gizonek betetzen dute–, eta kristalezko sabaiaz gain –emakume gutxi daude lanpostu altuetan–, Espainiako unibertsitate publikoetan kristalezko labirintoa dago. Hau da, oztopo gutxi gorabehera ikusezinak dituen sistema bat, emakumeen ibilbide akademikoan zehar irakaskuntza eta ikerketa karrera geldiarazten duena. Eta ordaindutako enpleguaren esparruan dauden berariazko oztopo horiei gehitu behar zaie emakumeek gizonen baino denbora gehiago ematen dutela etxeko lanetan eta ordaindu gabeko zaintza lanetan, eta horrek irakaskuntzarako eta ikerketarako denbora eta prestasun gutxiago izatea esan nahi du.



## Sarriko, zero hondakinak!

Erronka on proiektuaren esparruan, Fakultateko ikasle guztiei irekitako erronka bat proposatu da, ingurumen jasangarritasuna sustatzeko. Erronkan **Izaro García** eta **Martina Lacasta** ikasleek hartu dute parte, **Maite Ruiz** eta **Lidia García** irakasleen gainbegiradapean.

Erronkari hasiera emateko, Alzola Basque Water-eko zuzendari nagusi Patxi Casalek hitzaldi bat eman zuen, uraren ontzien eta bilgarrien ekodiseinuari buruz, eta ikasleekin egindako saio dinamikoen bidez jarraitu zen, erronketan edo Challenge Based Learning (CBL) metodologiari jarraiki.

Ariketa horren bidez, ikasleen artean kontzientziazio txikia detektatu da birziklapenaren arloan, paperontziak

behar bezala erabiltzeari buruz, eraikin nagusian dauden zabor organikoaren kontzentrazioa eta ontzientzako edukiontzien eskasia direla eta. Era berean, zabor poltsak berdin erabiltzen dira kolore estandarizatua kontuan hartu gabe birziklapena errazteko. Ikasleek proposatu dute hondakin mota bakoitzerako edukiontzia dituzten paperontziak modu homogeneoan jartzea Fakultateko eraikin guztietan, edo, bestela, kartelak paperontzian bertan jartzea, eduki behar duen zabor motarekin. Neurri horiek ikasleak kontzientziatzeko lanarekin osatu behar dira, mentoring programa baten bidez. Erronka horri 2023-2024 ikasturtean ekingo zaio.

*Elena Catalán eta Maite Ruiz*

## Unibertsitateko erakundearen eta arauen testuingurua aztertzeako tailerra



**Salvador Perelló**, Soziologiako katedraduna Madrillgo Juan Carlos Errege Unibertsitateko Komunikazio eta Soziologia Zientzietako Sailean eta ANECAko PEP programako Gizarte eta Lege Zientzien III Batzordeko presidentea, eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko gradu aretoan "Unibertsitateko erakundearen eta arauen testuingurua aztertzea. Irakasleak akreditatzeko sistema" izenburudun tailerra eman zuen.

*Henar Díez*

# Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundeentzako ASG Gida

Interes-talde desberdinen eskaerek, hala nola laguntza, dirulaguntza eta/edo dohaintza publiko eta pribatuen prozesuek, erakunde horiek, modu batera edo bestera, informazio jasangarria emateko beharra eragingo dute, gauzatutako ekintzen sinesgarritasun eta legitimitate handiagoa lortze aldera.



Sarrrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Finantza Ekonomia I Saileko **Noemí Peña Miguel** irakasleak, **Javier Corral-Lage**, **Joseba Iñaki de la Peña Esteban**, **Sonia García-Delgado**, **Izaskun Ipiñazar Petralanda**, **Estibaliz Sáez de Cámara**, **Ainhoa Saitua-Iribar** eta **Josune Pérez Estradarekin** batera, US 22/24 ikerketa-proiektua gidatu du, EDE Fundazioarekin lankidetzan. Proiektu honen parte gisa, **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeentzako informazio ez-finantzarioa ingurumen, gizarte eta gobernantza adierazleen bidez emateko eta egiaztatzeko gida** bat argitaratu da. Adierazleak irabazi-asmorik gabeko erakundeek berek (ESFL) proposatu dituzte, UPV/EHUko US 22/24 proiektuko taldeak egindako inkesta baten bidez lortutako erantzunen bidez, eta ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arloko 20 adierazle hautatu dira. Gaur egun, ESFLak ez daude legez behartuta horrelako informazioa ematera. Hala ere,

interes-talde desberdinen eskaerek, hala nola laguntza, dirulaguntza eta/edo dohaintza publiko eta pribatuen prozesuek, erakunde horiek, modu batera edo bestera, informazio jasangarria emateko beharra eragingo dute, gauzatutako ekintzen sinesgarritasun eta legitimitate handiagoa lortze aldera.

Gidak tresna bat izan nahi du, **edozein erakunde motak jakin dezan zer lehentasun hartu behar dituen bere gain, Garapen Iraunkorreko Helburuak (GJH) lortzen laguntzeko eta horien eragina modu eraginkor eta konparagarrian neurtzeko**. Horrela, informazio konparagarria, egiaztagarria eta iraunkorra prestatzen lagunduko du. Informazio horrek onurak ekarriko dizkie erakundeei, hala nola kostuetan aurrezteak, irudi korporatiboa hobetzea, giza baliabideen zuzendaritza hobetzea, enpresa-kultura motibatzailea, inklusiboa eta GJHetan oinarritua sortzea, etorkizuneko araudietara egokitzea eta iruzurrezko jarrera desegokiak murriztea, gizarte-

eta ingurumen-kudeaketa hobetzea, aliantza berriak sortzea eta finantzaketa-aukerak areagotzea.

*Javier Corral-Lage*



# Bilbao Urban, UPV/EHUrekin batera, “Gure hiriak birnaturalizatzen” jardunaldian



Joan den asteartean, urtarrilaren 31n, **“Gure hiriak birnaturalizatzen”** izeneko jardunaldietan, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak antolatuta, Bilbao Urban Designekin, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin lankidetzan. Ekitaldia Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gradu Aretoan izan zen (Sarrikoko Campusa), eta lurraldearen erregulazioa beharrezkoa zela aipatu zen, Nazio Batuen 2030 Agendaren gidalerroak kontuan hartuta, 11. GJHari dagokionez.

Horri dagokionez, **naturan oinarritutako konponbideak** aipatu ziren, urbanizazioan alternatiba jasangarriak eskaintzeko aukera baliagarri gisa. NBSrekin (Nature Based Solutions) lerrokatutako hainbat adibide aipatu ziren. Adibidez, Hiriko Drainatze Jasangarriko Sistemak (HDS).

Hiriei eragiten dieten klima aldaketaren mehatxuarekin dauden aurrean (hala nola uholdeak, lehorreak, suteak edo tenperaturen gorakada), mota horretako NBS alternatibek ekar ditzaketen onurei egin zitzaion erreferentzia, bai gizartearen ikuspegitik, bai ingurumenaren edo ekonomiaren ikuspegitik. Adibidez, inbertsioaren itzuleraz hitz egin zen, American Forest-en arabera, eta inbertitutako 1\$ bakoitzeko 4\$ izatera iritsi zitekeen. Adibidez, ingurumen onura gisa, Medellingo Korridore Berdeek giroko tenperatura 2,7 gradu jaitea lortu dute.

**3-30-300 araua** kontuan hartzeko beharra aipatu zen; arau horren arabera, pertsona bakoitzak bere etxetik gutxienez 3 zuhaitz ikusi ahal izan behar ditu; auzo bateko bizilagunek gutxienez % 30eko landaredia izan behar dute beren etxebizitzaren inguruan, eta, azkenik, berdegune edo parke publiko ba-

tetik gehienez 300 metrora bizi behar dute.

*Unai Tamayo*



# Erromako Klubaren “Hazkundearen mugak” txostenaren 50. urteurrena. EHUGune Eztabaida Foroa - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

Posible al da amaigabeko hazkunde ekonomikoa mundu mugatu batean?

ezkerretik eskuinera:  
Jon Barrutia, David Hoyos, María José Gutiérrez, Laura Ruiz, Felipe Serrano, Antonio Valero eta Roberto Bermejo.



2022ko abenduaren 15ean, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko) **EHUGune - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Foroaren** lehen eztabaida egin genuen. Gure fakultatearen, EHUGuneko zuzendaritzaren eta Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transfereziaren arloko Errektoreordetzaren baterako ekimen honen helburua da ikasleen artean ekonomiaren eta enpresaren esparruan interes berezia duten gaiet buruzko eztabaida eta hausnarketa kritikoa sustatzea.

Erromako Klubaren “Hazkundearen mugak” txostenaren 50. Urteurrena dela-eta, mahai inguru bat egin genuen muga naturalei eta hazkunde ekonomikoari buruz eztabaidatzeko, 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarrirako Helburuen esparruan. **Jon Barrutia** dekanoa eta **David Hoyos** EHUGuneko zuzendariak ongiatorri labur bat egin ondoren, **Laura Ruiz** Mugarik Gabeko Ekonomialarien Euskal Elkargoko Ekonomia Jasangarriko Komunitateko kidea izan zen mahai baten moderatzailea. **Antonio Valero** Zaragozako Unibertsitateko Ingeniaritza eta Arki-

tektura Eskolako katedradun eta Erromako Klubeko kideak eman zuen lehen hitzaldia, eta eztabaidarako oinarriak ezarri zituen, “Thanatia” liburuaren aurkezpenaren bidez, Termodinamikaren Legean oinarritutako ikuspegi zorrotzarekin eta Lurraren baliabide abiotikoen ikuspegi integralarekin. Ondoren, planteatutako gaiari buruz eztabaidatzeko gonbidapena egin zitzaion hiru erreferentereri. Erreferente horiek ekonomiaren diziplinatik jorratzen dituzte alderdi horiek, ikuspegi desberdinekin. Zehazki, ekitaldian parte hartu zuten: **María José Gutiérrez**, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko katedraduna; **Felipe Serrano**, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko katedraduna; eta **Roberto Bermejo**, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko katedradun emeritua.

Mahai inguruak hiru gai nagusi jorratu zituen: lehenik eta behin, 70eko hamarkadan txostenak izan zuen eraginari buruz eztabaidatu zen, batez ere zientzia ekonomikoaren esparruan; bigarrenik, 50 urte geroago txostenaren indarraldiari buruz eztabaidatu zen,

hazkunde ekonomikoaren muga biofisikoak kontuan hartuta, eta hazkunde ekonomikoaren eta Garapen Jasangarrirako Helburuen arteko bateragarritasunari buruz; eta hirugarrenik, jasangarritasunaren arloan ikasleek ekonomian eta enpresan gaur egun duten prestakuntzaz eztabaidatzeko aukera izan genuen, baita XXI. mendeko ekonomialarientzat ikuspegi eta tresna berriak txertatzeko beharraz ere, etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko, baliabide eskasia dagoen egoera batean. Ondoren, galderen txanda izan zen, eta jendeak egindako 20 galdera baino gehiagori erantzuten saiatu ziren.

Ezin izan bazinen joan, jardunaldiko bideoa ikus dezakezu [esteka](#) honetan. Ez galdu hurrengo edizioak!

David Hoyos



## 2023ko irakaskuntza berrikuntzari buruzko jardunaldiak

Ekonomia eta Enpresa Fakultateak 2023ko irakaskuntza berrikuntzari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Oraingo honetan, Jasangarritasuneko Hezkuntza jorratu da. Jardunaldi horietan, **Iñaki Periañezek, José Domingo García, Julián Pandok eta María Jesús Luengok** ikasleak, irakasleak eta erakundeak Ekonomia eta Enpresako gaitasunen azterlana aurkeztu zuten. Elcano sailetik, **Marta Barandiarán eta Miren Barrenetxeak** jasangarritasuna lantzeko Hezkuntza Berriztatze Proiektua azaldu zuten: erakundearen eta irakasleen arteko irakaskuntza lana. **Unai Tamayok** irakasleak animatu zituen EmPact i3 proiektuan parte hartzea, nazioartean jasangarritasuna lantzeko aukera paregabea baita. Azkenik, **Erronka On!** proiektuko hainbat irakasleek beren irakaskuntza esperientziak aurkeztu zituzten, bai graduaren, bai masterrean, hezkuntza jasangarritasunaren arloan eta ikasleak Garapen Jasangarriko Helburuetan inplikatzearen arloan. Nabarmentzekoa da **Izaro García Lomas** ikaslearen parte hartzea, **Maite Ruiz-Roqueñi** irakasleak koordinatutako "Sarriko, zero hondakinak" erronkan ikasleek egindako lana azaldu baitzuen. Jardunaldiak **Elena Catalán** Kalitate, Ikasketa Berrikuntza eta Ekintzailatzeko dekanordeak itxi zituen, 2022-2023 ikasturtean egindako lanaren balantzea eginez eta lan ildo berriak proposatuz.

*Elena Catalán*

## Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Ekonomia Industrialeko Jardunaldien arrakasta



Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko **Analisi Ekonomiko Sailak** joan den irailean jaso zituen Ekonomia Industrialeko XXXVII. jardunaldiak. Jardunaldi horietan ehun pertsona inguru bildu ziren gaitasunari, erregulazioari eta merkatuei buruz eztabaizatzeke.

Jardunaldiak Ekonomia Industrialeko ikertzaileen nazioarteko topagunea dira, eta Espainiako Ekonomia Elkarrearen (AEE) Ekonomia Industrialeko Batzordeak antolatzen ditu. 1985etik, bilerak aukera eman die Ekonomia

Industrialean ikertzen dutenei egiten ari diren lanari buruz eztabaizatzeke, ideiak partekatzeke eta harremanak ezartzeke.

Compax Lexeconen, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren, Funcasen, Lehiaren Euskal Agintaritzaren, AEEren eta UPV/EHU beraren babesari esker, edizio honetan hizlari bikainak jaso ditugu, hala nola Bontond Köszegi (Briq Institute on Behavior and Inequality, Bonn, and CEU), Chiara Farronato (Harvard Business School) eta Imke Reimers (Cornell University), 22 hitzaldi paralelotan. Horrez gain, Funcasekin mahai-inguru bat ere egin da.

Hiru hamarkada baino gehiagoz, bilerak zenbait herrialdetako partaide ugari erakarri ditu eta azken edizioak tradizio hori finkatu du.

Informazio gehiago: [https://asesec.org/jornadas\\_economia\\_industrial/](https://asesec.org/jornadas_economia_industrial/)

*Aitor Ciarreta, Cristina Pizarro-Irizar, Amagoia Sagasta eta Marta San Martín*

## Eugenio Sánchez Alcázar eta Curriculum Jasangarritasuna

**Eugenio Sánchez Alcázarrek**, Mur-tziako Unibertsitateko Ekonomia Aplikatu Saileko irakasleak, honako izenburua hau zuen tailerra eman zuen: **"Sostenibilización curricular: Integración de los Objetivos de Desarrollo Sostenible en la Docencia Universitaria"**. Sánchez Alcázar irakasleak CRUEk graduako ikasketetan Garapen Jasangarriko Helburuak integratzeko duen

konpromisoa azaldu zuen eta zenbait tresna erakutsi zituen Ekonomia eta Enpresa Fakultateko egresatuen profiletara egokitutako jasangarritasun mapa egiteko.



*Elena Catalán*

# Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Doktoregoen Jardunaldiak



Ezkerretik eskuinera: Jon Sanpedro, Lucía Gorjón eta Unai Arzubiaga

## Beatriz Plaza

(Ekonomi Integrazioa doktoregoa)

## Amaia Maseda y Jon Charterina

(Enpresa Zuzendaritza, Ezagutza eta Berrikuntza doktoregoa)

## M<sup>a</sup> Paz Moral

(Ekonomia: Ekonomia Analisirako Tresnak doktoregoa)

## Jesús Vázquez

(Finantza eta Ekonomia Kuantitatiboak/ Quantitative Finance And Economics doktoregoa)

**Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Doktoregoen Jardunaldien** bederatzigarren edizioa egin zuten urriaren 26 eta 27an. Gure fakultatean, dagoeneko, finkatuta dago ekitaldi akademiko hori. Fakultatean eskaintzen diren lau doktorego programek elkarrekin antolatzen dute: (i) Ekonomia: Ekonomia Analisirako Tresnak, (ii) Ekonomi Integrazioa, (iii) Finantza eta Ekonomia Kuantitatiboak / Quantitative Finance and Economics eta (iv) Enpresa Zuzendaritza, Ezagutza eta Berrikuntza. **Ekonomia eta Enpresa Fakultateak eta UPV/EHUko Doktorego Eskolak** babesten dituzte jardunaldiak. Fakultateak antolatzen duen doktorego ikasketei buruzko urteko baterako ekitaldi garrantzitsuen da. Doktorego ikasleen, UPV/EHUko irakasleen eta irakasle gonbidatuen arteko komunikazioa eta ezagutzen trukea ahalbidetzen ditu.

Urtero bezala, nazioartean ospe akademikoa duten irakasleak gonbidatzen dituzte ekitaldia antolatzen duten doktorego programek. Horrez gain, ikerketa planen eta tesi aurreratuaren aurkezpena koordinatzen dute ikasleekin. Ekitaldiak iraun zuen bi egunetan zehar, zortzi saio izan ziren. Horietan, gonbidatutako irakasleen aurkezpenak ikusi ahal izan genituen, eta mahai inguru bat ere egin zen, doktorego

ikasketak egiten hasi diren ikasleen eta doktore gradua eskuratzeko hilabete batzuk baino falta ez zaizkien doktoregaien artean. Jardunaldien bederatzigarren edizio honetan, honako hauek izan ziren hizlari eta komentaria gonbidatuak: **M<sup>a</sup> Isabel Neira Gómez**, Santiagoko Unibertsitateko Ekonomia Kuantitatiboko katedraduna, eta **M<sup>a</sup> Leticia Santos Vijande**, Oviedoko Unibertsitateko eta CUNEFeko Merkaturatze eta Merkatuaren Ikerkuntzako katedraduna. Halaber, mahai inguru bat egin zuten jardunaldietan, eta bertan parte hartu zuten fakultateko doktorego programetan graduatutako hiru doktorek: **Unai Arzubiaga doktorea** (UPV/EHUko irakasle titularra), **Lucía Gorjón doktorea** (Ikertzaile seniorra ISEAKen, Initiative for Socio-Economic Analysis and Knowledge) eta **Jon Sanpedro doktorea** (Marie Skłodowska-Curie Postdoctoral Fellow hemen: Basque Centre for Climate Change, BC3). Doktorego ikasketak egin ondoren izandako esperientzia profesionalei buruz hitz egin zuten.

Doktoregaiek hamalau tesi aurreratu eta zazpi ikerketa plan aurkeztu zituzten. Halaber, ekitaldira bertaratu ezin zuten nazioarteko ikasleek urrutetik parte hartzeko eskaria egin zuten eta, eskari horri erantzunez, bideokonferentzia bidez parte hartu zuten saioetako batean.

Beste urte batez, jardunaldi hauek antolatzen ditugun lau doktorego programak gustura gaude esperientziaren kalitatea dela eta. Ikasleek eurek aitortu dute kalitate hori, jardunaldiak amaitzean erantzundako inkestaren bidez. Zehazki, 5etik 4,77koa izan zen jasotako batez besteko puntuazio orokorra. Eraitza horiek eta gonbidatutako kanpoko irakasleen eta publiko orokorraren iritzirik onenak animoa ematen digute egokitzen jarraitzen saiatzeko eta jardunaldi hauen etorkizuneko edizioetan formatua hobetzeko.

*Jon Charterina*

# Ekonomista Digitalaren Gaitasunak aurkeztea

Fakultateko irakasleen taldeak, **Iñaki Periañezek** zuzenduak, Ekonomisten Elkargo Ofizialean aurkeztu zuen **Ekonomiaren esparruko Gaitasun Profesionalen Ikerketa**. Ikerketaren xedea da enplegua eskaintzen dutenen ikuspuntutik identifikatzea eta baloratzea gaitasun profesionalak (tradicionalak, digitalak eta jasagarritasunekoak), bai eta lan merkatuan horiek aurkitzeko zailtasuna ere. Berritasun gisa, Basque Country 2030 Agendaren esparruan, ikerketak gizarteak eskatzen dituen jasagarritasuneko gaitasunak eta gaitasun digitaletako joerak identifikatzen ditu.

Aurkezpen bideoa:

[https://www.youtube.com/watch?v=ALJlzNuD\\_Ic](https://www.youtube.com/watch?v=ALJlzNuD_Ic)

Sarbidea ikerketetara:

[https://www.ekonomistak.eus/Contenidos/Ficha.aspx?IdMenu=da07268e-db41-4cc7-a780-325caaf005&Idioma=es-ES&utm\\_source=ekonomistak&utm\\_campaign=749befee74-III.+FORO+FISKALA\\_2019\\_COPY\\_02&utm\\_medium=email&utm\\_term=0\\_1e01ffc880-749befee74-358690513](https://www.ekonomistak.eus/Contenidos/Ficha.aspx?IdMenu=da07268e-db41-4cc7-a780-325caaf005&Idioma=es-ES&utm_source=ekonomistak&utm_campaign=749befee74-III.+FORO+FISKALA_2019_COPY_02&utm_medium=email&utm_term=0_1e01ffc880-749befee74-358690513)

*Iñaki Periañez*



## I. Gazte Ekonomistak Foroa. Nola irabazi dirua?



Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikotzeko ikasleak eta Gazte Ekonomistak taldeko kideak dira **Ana Jimena** eta **Álvaro Ruiz**. Horiek bultzatu dute azaroaren 11n, larunbatean, Bilboko Zabalgune eraikinean egindako ekitaldia, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen eta Rural Kutxaren laguntzarekin. Ekitaldian, zeharkako gaitasunak garatzeaz gain, taldeko lana sustatu zuten. Hala, aisialdi bilakatu zuten arlo akademikoan.

Jardunaldiaren lehen zatian honako gaien gaineko arrakasta kasuak aurkeztu zituzten: enpresaren etikaren kudeaketa, sare sozialen erabilera, nortasun profesional digitala, GJHak, kriptoaikiboak eta gaitasun profesionalak. Hainbat profesionalak hitz egin

zuten, hala nola Jagoba Ormaetxeak (GURE POKE), Venan Llonak (zibersegurtasunean aditua), Iratxe Sanzek (Rural Kutxa), Ezra eta Gabrieleak (PATXES), **Unai Tamayok** (UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen Euskara, Enplegu eta Enplegarritasun ataleko dekanordea), **Eneko Astorkizak** (kriptoaktiboetan aditua) eta **Iluminada Apariciok** (Presakuntza eta Enplegu arduraduna Ekonomisten Euskal Elkargoan).

Patxes croissant ospetsuak eta Gure Poken egile kafea dastatu ondoren, lehiaketa bat egin zuten. Ekonomisten Euskal Elkargoan aurrekolegiatzeko marketin kanpaina bat sortu behar zuten lehiaketako parte hartzaileek. Guztira, 22 taldek eta UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko

hainbat gradutako 100 ikaslek parte hartu zuten. Ideia handiak proposatu zituzten eta, zalantzarik gabe, agerian utzi zituzten UPV/EHUko ikasleek dituzten gaitasunak eta talentu handia.

Honako taldeek irabazi zuten. Lehengo saria, ikasle hauek osatutako taldeari: **Javier Albisu, Laura Almodóvar, Celso Pérez, Laura Fernandez eta Maider Baigorri**. Bigarren saria **Alba Ruiz, Sara Perez, Garoa Arbaizar, Leire Gonzalez eta Eider Sevillano** ikasleei. Eta, hirugarren saria, **Nagore Odriozola, Maitane Asla eta Laura Rodriguezen** taldeari.

*Unai Tamayo*

# GJHak gehitzea Enpresen Kudeaketan

2023ko martxoaren 17an, Bilboko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko **Areto Nagusian, Eider Inuncia-ga Sernak (BBK Kuna: GJHen Etxeko** zuzendaria) hitzaldi bat eman zien fakultate honetan eskaintzen diren gradu guztietako lehenengo mailako ikasleei.

BBK Kunak egoitza du Kuna Etxean dagoen egoitzan. Eraikin hori Bilbon dago eta Ricardo Bastidak eraiki zuen 1916an. Berrikuntza sozialeko espazioa da, non Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lotutako zenbait eragilek parte hartzen duten, etorkizuneko erronkei erantzuna emango dieten konponbideak eskaintzeko. Erronka horiek guztiak 2030 Agendarekin lotuta daude.

**GJHak Enpresa Kudeaketan integratzea** izenburupean, BBK Kunako zuzendariak garapen iraunkorraren aldeko apustu globalaren balioa nabarmendu zuen. Halaber,

herritarrek eta enpresek horien aldeko praktika arduratsuak sustatzen duten ezinbesteko zeregina adierazi zuen. Bere azalpenean, negozioa jasangarritasunerantz osorik eraldatzeko kulturaren garapenerako ezinbesteko ekintzak deskribatu zituen, eta lidergoaren eta talentuaren kudeaketaren garrantzia nabarmendu zituen, erakundeetan GJHak integratzeko faktore sustatzaile gisa.

Ekitaldia **Finantza Ekonomia II** saileko **Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza** irakasgaiko irakasleek antolatu zuten eta **i3KD22-36 ERRONKA ON! Berrikuntza Proiektuaren** esparruan egin zen.



*Yolanda Chica*



## Irteera profesionalen gosariak

Edozein ikaslek, karrera amaitzean, lan egin eta lan bat aurkitu nahi du. Lan hori errazteko, Ekonomia eta Enpresa Fakultateak (Sarriko), aurten ere, jardunaldi **espezifikokoak** antolatzen ditu **profesionalekin eta enprekin**. Jardunaldi horietan, jarduera-arloak, lanpostuak, lanpostu bakoitzari lotutako zereginak, misioa eta ekonomialariak kontratatzekeo interesa duten enpresak aurkezten dira.

2023-2024 edizio honetan, **Ekonomisten Euskal Elkargoarekin elkarlanean**, bi GOSARI antolatu dira, ikasleek Fakultatera hurbildu diren profesionalekin hitz egiteko aukera izan dezaten. Alde batetik, azaroaren 22an **Aholkularitza, Auditoretza, Controller, Finantza, Kontabilitate eta Marketin** arloetako hiru profesionalekin hitz egin ahal izan zen. Bestalde, abenduaren 13an, ospe handiko hiru enpresaren txanda izan zen: Deloitte, Iberdrola eta Laboral Kutxa.

Gosari hauekin, gure ikasleek bi aldeentzako gertuko elkarrizketa aberasgarriaz gozatu ahal izan zuten, interes handiko **dinamika profesionalak** ezagutu eta bertan parte hartu ahal izan zutelarik.

*Izaskun Ipiñazar*



# Abokatutzako enpresen bisita



2023an abokatutzako ospe handiko bost enpresa etorri dira fakultatera, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzeko 5. ikasmailako ikasleekin hitz egitera: **Garrigues**, **Cuatrecasas** eta **Uría Menéndez**. Estatuan zein nazioartean ospe handia duten enpresak dira, zerbitzu legalak eta fiskalak eskaintzen dituztenak. Hala, negozioen zuzenbideko alderdi guztietan ematen dute aholkularitza.

Arlo juridikoaren zirrikitu profesionalak ezagutu ahal izan dituzte ikasleek, eta negozioen eta enpresen abokatutzaren praktikarekin lotutako ibilbide profesionala garatzeko aukera izango dute. Ibilbide profesionala eskaintzen dute guztiek, amaieran bazkide izateko aukerarekin. Eta gure fakultateko ikasgeletan talentua hautatzea da lehenengo pausoa. Urtez urte bista hauetan agertzen duten inplikazioa eskertzen diegu **Paula Guezuragari** (Garrigues), **Gloria Ruizi** (Cuatrecasas) eta **Irantzu Irastorzari** (Uría Menéndez).

*Izaskun Ipiñazar*

# Café Fortalezaren konferentzia

Joan den azaroaren 15ean **Lucía Padró** eta **Izaro Martínez** etorri ziren fakultatera, Café Fortaleza enpresako CEOa eta Marketineko zuzendaria, hurrenez hurren. Ia 400 pertsonak jarraitu zuten konferentzia, bai aurrez aurre, bai streaming bidez. Enpresa nola sortu zen, historian zehar izandako gertakari garrantzitsuenak eta egungo plan estrategikoaren zati handi bat azaldu zituzten. Enpresa Ekonomiarako Sarrera irakasaigo lehen mailako ikasleek arretaz jarraitu zituzten azalpenak, giltzarriak baitziren irakasgai horretako lan nagusia egiteko.

Ondoren, bi hizlariak galderei erantzun zieten, unibertsitatearen eta enpresaren arteko elkarlanaren erakusgarri. Ikasleek asko eskertu zuten hori. Saioa grabatzen utzi ziguten, eta [hemen](#) ikusi daiteke.

*Covadonga Aldámiz-Echevarría  
eta Susana Tejada*



# Nola izan ekintzaile Insurtechen

Urriaren 19an, astelehenean, "Nola izan ekintzaile Insurtechen" izenburuko jardunaldia antolatu zuten Bizkaiko Campuseko ekintzailetza zerbitzuak (Zitek) eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateak, Aktuariatza eta Finantza Zientzietako Unibertsitate Masterraren eskutik.

**Oscar Paz de la Fuentek**, aseguruetan adituak, aseguruetan nola ekin kontatu zien ikasleei. Era berean, gaur egun aseguruaren aktuarioaren lanak dituen alderdi teknologiko berritzaileen eta eguneratuen berri eman zien. Aseguruaren sektorean aplikatzen diren aurrerapenak eta estrategiak ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek, baita aseguruaren eraldaketa digitalari la-



guntzen dioten negozio eredu digital berriak ere. Eredu berri horiek ikasleek arreta berenganatu zuten. Interesa agertu zuten, eta galdera dezente egin zituzten. Insurtech Community Hubi buruz ere hitz egin zigun Óscarrek. Aseguruaren eraldaketa digitala sustatzen eta bultzatzen duen berrikuntza espazioa da hori. Era berean,

elkarrekin sortzeko eta elkarlanean aritzeko ekosistema bat da, Insurtechen espezializatua. Bertan biltzen dira enpresa berriak, aseguru etxeak, artekaritzak, inbertitzaileak eta unibertsitateak.

Noemí Peña

# Tecnalia Ikasgela



Joan den azaroaren 4an talentu ekintzailearen foroa antolatu zuten Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Tecnalia Ikasgelak, MBAe3 Ekintzailetza eta Enpresa Zuzendaritza Masterrak eta Bizkaiko Campuseko ekintzailetza zerbitzuak (Zitek). Honakoak izan ziren foroaren aurkezpenean eta ongi-etorrian: **Jon Barritua**, Ekonomia

eta Enpresa Fakultateko dekanoa; **Jesús Sanz**, Tecnaliako negozio estrategiaren zuzendaria; **Noemí Peña**, Bizkaiko Campuseko ekintzailetza eta transferentzia zuzendaria eta Ziteken arduraduna; eta **Goizalde Hernando**, MBAe3 masterreko zuzendarikidea.

Oinarri teknologikoko egitasmo ekintzaile bat, TECNALIA parte den lau deeptech startup eta UPV/EHUK sustatutako bost startup aurkeztu zituzten foroan. Hainbat aukera aurkeztu zituzten guztiek, lantalde sustatzailea indartzeko helburuz.

TECNALIAK honako proiektuak aurkeztu zituen: W2UWAN, H2SITE, IZPI-TEK eta BIOKEMIK. Eta profil hauek bilatzen zituzten: product manager, public affairs advocacy manager, Tresneria eta Kontroleko ingeniaria, lantegiko arduraduna edo CEO.

UPV/EHUK honako egitasmoak aurkeztu zituen, ZITEKek (UPV/EHUREN Bizkaiko Campuseko ekintzailetzari laguntzeko programa) eta MBAe3k (UPV/EHUREN Ekintzailetza Masterra) sustatuta:

- UBYKO: azken miliako logistika-rako robotika eta automatizazioa.
- ROSEO: hiriko eolikara bideratutako startupa.
- Dblocks & TROPICALDENDA: ekitaldien eta elikadura produktuen marketplacea eskaintzen duen startupa.
- ALETHIA: basogintzako digitalizazioa bideratutako startupa.
- WITALGAE: elikagaien sektorerako mikroalgen biomasa merkatu-ratzen duen startupa.

Edozein profiletako ekintzaileak eta sustatzaileak bilatzen zituzten enpresa horiek.

Foroa amaitzeko, aurkeztutako aukeren ordezkariekin bi aldeko bilerak izateko tarte bat izan zuten interesa zuten pertsonen.

Noemí Peña



# Jasangarritasunari buruz egindako Gradu Amaierako Lanengatik saritu dituzte Ainhoa Unzueta eta Iruñe Sukia

**Ainhoa Unzueta** eta **Iruñe Sukia** Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak eta Ekonomiako Graduak ikasleak dira, hurrenez hurren, eta haien Gradu Amaierako Lanak, jasangarritasunari buruzkoak, ex aequo saritu dituzte. Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gasteizko Atalaren bultzatzen duen deialdia da, eta oinarrietan, garapenean eta amaierako eztabaidan jasangarritasunaren hiru alderditik (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) gutxienez bi lantzen dituzten lanak saritzen ditu. Hala, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 2030eko Agenda sustatzen laguntzea da helburua.

**Ainhoa Unzueta** saria jaso du "La información no financiera y reporting empresarial" izenburua duen lanarengatik; **Amaia Maseda** irakasleak zuzendu du lana. **Iruñe Sukia**ren lana, "On the role of Sustainability in European fund pricing using Mornings Star Ratings" izenburua duena, Javier Gardeazabal irakasleak zuzendu du eta, hasieran, Miguel Ángel Martínez Sedano irakasleak (iaz hil zen).

Joan den azaroaren 11n egin zuten sari banaketa, Gasteizko Atalean, fakultateko graduazio ekitaldian.

*Amaia Maseda*



## Álvaro Ruiz, Mondragon sarien GRAL finalista

Álvaro Ruiz Rodríguez EAZ eta Zuzenbide Graduko ikasleak egin eta Finantza Ekonomia II Saileko **Ana Blanco Mendialdua** irakasleak zuzendutako **“Criptoactivos: Presente y Futuro de las Stablecoins”** Gradu Amaierako Lana TFG TFM Mondragon Sarien finalista izateko hautatu dute. Zehazki, lana hamar onenen artean aukeratu zuten **gizartea eraldatzeko finantzak eraldatzea** TFG TFM Laboral Kutxa sarien kategorian. Guztira, 250 lan baino gehiago aurkeztu ziren kategoria guztietan.

Aurkeztutako GRALak kriptodirua- ren gaia jorratzen du. Gai hori, berez, ez da originala edo berritzailea. Hala ere, GRALak gai hori soilik sarrera gisa jorratzen du. Lanaren originaltasuna, berritasuna eta sormena stablecoinsen ikerketan datza, he- dabide eta erregulatuak batzuen

ahotan egon diren moneta digital mota bat; hala ere, horien ikerketa akademikoa eskasa izan da, dauka- ten garrantzi sozioekonomikoa handia izan arren. Era berean, GRA- Lak Central Banks Digital Currencies (CBDCs) aztertzen ditu, datorren finantza etorkizunari buruzko ikus- pegi errealista emateko, eta banku zentralek finantza eragiketen pribatutasuna eta trazabilitatea kontrolatzeko izan ahal dituzten arriskuak erakusteko.

Hemen kontsultatu ahal da [sariei buruzko informazioa](#).

Ana Blanco

## Nerea Urrutia, Sarrikoko Fakultateko ikaslea, II Ituna sariaren irabazlea



Sarrikoko Itunagunean egoitza duen Eko- nomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerke- tarako Agiritegiak (UPV/EHU) **Ituna Saria plazaratu du**, Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen arloekin zerikusia duten **Master Amaierako (MAL) eta Gradu Amaierako lanik (GRAL) onenak saritzeko**.

**Nerea Urrutia, Sarrikoko Zerga Siste- mako eta Administrazio Publikoko Gra- duko ikaslea**, GRALik onenaren II Ituna Sariaren irabazlea izan zen “COVID-19 Funtza eta foru-ogasunak. Pandemiaren eragina eta Aldebakarreko Arriskua” lanari esker. Gaur egun, Nereak fakulta- tean ikasten jarraitzen du eta “Master in Economics: Empirical Applications and Policies” egiten ari da.

Deialdia Euskadiko edo Espainiako goi mai- lako hezkuntzako edo ikerketa ofizialeko edozein ikastegitako ikasleentzat zabalik dago, eta sariek 600 euroko zuzkidura dute MALen kategoriarako, eta 300 eurokoa GRALen kategoriarako.

Gainera, Ad Concordiam Elkartearen eta Ituna Zentroaren arteko lankidetzaz hitzar- menari esker, saritutako lanak **“Colección Investigación Ad Concordiam”**-en argita- ratuko dira.

Lehenengo bi edizioen arrakastaren os- tean, Ituna Zentroak dagoeneko iragarri du 2023an aurkeztutako sarietarako Ituna Sa- rien III. edizioa. Informazio gehiago hemen: [www.ituna.eus](http://www.ituna.eus)

Sarrikoko Itunagunea BC9 gelan dago eta zabalik dago kontzertu ekonomikoa, foru ogasuna, federalismo fiskala eta soziologia fiskalarekin lotutako gaietan sakondu nahi duten ikasle guztientzat.

## Argitalpena “Reglamentación y tutela financiera de las haciendas locales vascas”

**Mikel Erkorekak**, Politika Publi- koak eta Historia Ekonomikoa Saileko irakaslea eta Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiri- tegiak Sarrikon duen itunagunearen zuzendaria, **“Reglamentación y tu- tela financiera de las haciendas lo- cales vascas: entre la Constitución foral y el Concerto Económico (1853-1937)”** liburua aurkeztu zuen maiatzaren 15ean.

Liburua Bizkaiko Foru Aldundiak, Eko- nomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegiarekin (UPV/ EHU) lankidetzan argitaratu da Foru Ogasunaren Klasikoak bilduman. Li- buruak, funtsezko dokumentu eta arauak bildu eta kritikoki aztertzen ditu,

euskal udal ogasunek foru garaitik Eko- nomia Itunaren lehen arora jasandako trantsizioa aztertzeko (1853-1937). Bereziki, 1910eko hamarkadan Ara- bako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldun- diek tokiko finantzaketa erregimenak arautzeko eta berrikusteko garaturiko prozesuan jartzen du arreta.

Liburua dohainik deskargatu daiteke Ad Concordiam Ekonomia Ituna sus- tatzeko eta hedatzeko erakundearen webgunean: [https://conciertoeco- nomico.org/profesionales-y- estudiantes/publicaciones/ coleccion-clasicos/](https://conciertoeconomico.org/profesionales-y-estudiantes/publicaciones/coleccion-clasicos/)

Mikel Erkoreka

# Miriam Parkhurst, Xakeko Nazioarteko Irabazlea eta UPV/EHUko Doktoregaia



Miriam Parkhurst Casas jarraitzeko eredu bihurtu da kirol karrera profesional arrakastatsua eta goi mailako hezkuntza konbinatu nahi dituztenentzat.

**Miriam Parkhurst Casas**, Mexikoko xake jokalaria ezaguna da eta zenbait gailur eskuratu ditu, bai xakearen munduan, bai bere prestakuntza akademikoan. Gaur egun, **UPV/EHUko Enpresa Zuzendaritza, Ezagutza eta Berrikuntza Doktoregoko** ikasle gisa bere ametsa lortzen saiatzen ari da. Taulan daukan talentu bikainak eta bere dedikazio akademikoak bi esparruetako arrakastaren adibide bikain bihurtzen dute.

2023ko martxoan, Parkhurst Casas **2023eko Bizkaiko emakumezkoen txapeldun absolutua eta titulu hori irabazi duen lehenengo atzeritarra** izendatu zuten, garaipen nabarmena lortuz. Bizkaia gailurrean jartzeko asmoz, urte bereko maiztzean **Euskadiko 2023ko emakumeen txapeldun absolutua** izatea lortu zuen. Horrela, Euskadi Espainiako Txapelketa Absolutu prestigio-dunean ordezkatzeko eskubidea lortu zuen, zeina Marbellan izango den.

Espainiako Txapelketa Absolutua garrantzi handiko ekitaldia da Espainiako xake egutegian; izan ere, herrialdeko jokalaririk onenek titulu nazional absolutua lortzeko lehia epikoa egiten dute. Miriamek azken aldian izan dituen lorpenek goi mailako lehiaketa horretarako ateak zabaldu dizkiote, eta aukera paregabea izango du xakeko espainiar maisuekin buruz burukoan aritzeko.

Parkhurst Casasen ibilbidea azken aldiko lorpenez haratago doa. Bere karreran zehar, titulu eta aitorten asko jaso ditu. Mexikoko selekzio olinpikoan parte hartu du eta Mexikoko irabazle nazionala izan da zenbait alditan; halaber, herrialdeko jokalaria talentutsuenetakoa bat da. Gainera, **aztarna utzi du nazioarteko mailan**; izan ere, Ipar Amerikako gazte

mailako txapeldun titulua eta Panamerikar Xake Jokoetan hainbat domina lortu zituen.

2020an, Parkhurst Casasek **lorpen historikoak eskuratu zituen Euskadiko xakean**. UPV/EHUko Xakeko 17. Cibermaratoiaren irabazle mistoa eta femeninoa izan zen. Hori horrela, maratoni hori irabazten lehenengo emakumea izan zen, 17 edizioren ostean. Gainera, UPV/EHUren "Nire etxean jolasten" xake maratoniaren lehenengo edizioko lehenengo irabazle misto gisa nabarmendu zen. Taulan duen nagusitasuna Groseko Nazioarteko Openean ere islatu zen, 2022ko irailean Donostian ospatua; izan ere, emakumezkoen txapeldun izendatu zen.

Ikuspegi horretatik, Miriam Parkhurst Casas jarraitzeko eredu bihurtu da kirol karrera profesional arrakastatsua eta goi mailako hezkuntza konbinatu nahi dituztenentzat.

Apur bat gehiago ezagutu ahal duzu esteka hauetan:

<https://www.diariovasco.com/bajo-deba/elgoibar/victoria-mejicana-miriam-20221219182216-nt.html>

[Dialogando con: Temporada 2, Capítulo 07: "C. Miriam Parkhurst Casas". - YouTube](#)

<https://www.youtube.com/watch?v=dVQnjfW6Uhw>

[Ajedrez y estrategia empresarial, dos pasiones juntas \(eitb.eus\)](#)

# Sara de la Ricak Emilio Ontiveros Ekonomia Saria jaso du



Sara de la Rica, ISEAK Fundazioaren sustatzaileetako eta sortzaileetako bat da. ISEAK ekonomia- eta gizarte-desberdintasunen azterketan espezializatutako ikerketa- eta transferentzia-zentroa da

**Sara de la Rica**, UPV/EHUko Ekonomia Analisia Saileko katedradunak eta ISEAK Fundazioko zuzendariak Afi Emilio Ontiveros Fundazioak emandako Emilio Ontiveros Ekonomia Saria jaso du. Sari horrek ekonomialari saritu ospetsuak islatutako balioak irudikatzen dituzten jarduneko profesionalen lan nabarmena saritzen du. Epaimahaiak saria Sara de la Ricari eman dio gizarteari egindako ekarpen baliotsuagatik eta ISEAK sortzean erakutsi duen alde ekintzaileagatik. ISEAK "eragin sozial handiko" erakundea da epaimahaiaren hitzetan.

Sara de la Rica, UPV/EHUko Ekonomia Analisia Saileko katedradun izateaz gain, **ISEAK Fundazioaren sustatzaileetako eta sortzaileetako bat da**. ISEAK ekonomia- eta gizarte-desberdintasunen azterketan espezializatutako ikerketa- eta transferentzia-zentroa da. Zentro hori 2018an ezarri zen Bilbon, datuen analisisan oinarritutako informazioa emateko xedearekin, erabakiak hartzea errazteko, eta zorroztasun zientifikotik eta independentzia akademikotik, gizarte aurreratu bat eraikitzen laguntzeko. Sara de

la Ricaren ibilbidea ekonomiaren alor ugartan egindako argitalpen akademiko ugariengatik nabarmentzen da, eta kongresuetan, hausnarketa foruetan eta kontseilu aholkularietan parte hartzeagatik, non gizarteari ezagutza ekonomikoak zabaldu dizkion.

Eskerrak emateko hitzaldian, Sara de la Ricak eskerrak eman zizkien Afi Fundazioari eta epaimahaiari, bera aukeratzeagatik, baita bertaratu guztiei ere. Horrez gain, ISEAKek 2018an sortu zenetik egindako lana nabarmendu zuen; izan ere, hainbat gizarte arazo aztertzen lagundu du, hala nola desberdintasunak, langabezia eta digitalizazioa, ikerketa eta ikerketa proiektu ugariaren bidez, honako hauekin lankidetzan: administrazio publikoak (hala nola Lan eta Enplegu Ministerioa; Euskadiko, Andaluziako, Kanarietako eta Nafarroako gobernuak) eta beste erakunde batzuk (hala nola COTEC, Ijitoen Idazkaritza Fundazioa eta Gurutze Gorria).

# Unai Aberasturi

## *Datuen Babeserako Euskal Agentziaren zuzendari izendatu dute*

**Unai Aberasturi**, UPV/EHUko Administrazio Zuzenbideko irakaslea, **Datuen Babeserako Euskal Agentziaren** zuzendaria izango da. Irakaslea duela bi hamarkada baino gehiago hasi zen esparruan lanean, eta erakunde publiko horren eraldaketaren erronkaren liderra izango da Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege berriaren indarrean sartzean. Lege hori izapideen azken zatian dago eta 2004ko araudia ordeztuko du.

2001ean, lizentziatu berri zela, IVAP-en ikerketa bat egin zuen udalerriko esparruko datuen babesari buruz, eta "udal askotan ez zekiten datuen babeserako 1998ko lege organikoa existitzen zela". Hori horrela, egungo agenzia titulartasun publikoko fitxategien erabilera arautzeko xedearekin sortu zen.

*Elena Martínez Tola*



# Master Marketin Sarien (PesMes) VI. edizioa

## *Euskadiko marketineko ekintza onenentzako sariak*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (egoitza) Areto Nagusia dotore jantzi zen azaroaren 17an, ostiralean. Izan ere, azken bi urteetan euskal erakundeek egindako marketineko ekintza nagusiak saritu zituzten.

2014. urtean jaio ziren PesMes sariak, Euskal Herriko Unibertsitateko Marketin eta Merkataritza Zuzendaritza Masterraren eta master horretako gradudun ez osatutako Marketing Alumni elkartearen babesarekin. Edozein mota eta neurritako profesionalek, markek, enpresek eta beste erakunde batzuek marketinaren arloan egiten duten lana (zentzurik zabalenean) publikoki aitortzea, bultzatzea eta hedatzea da sari horien helburua. Horren bidez, gainera, balioa eman nahi zaio marketinaren lehiakortasuna eta merkaturako arrakasta sortzeko eta handitzeko orduan duen garrantziari. Era berean, unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana sustatu nahi da.

Marketineko Gradu ikasleek ekitaldiaz gozatzeko aukera

izan zuten, eta zuzenean ezagutu zituzten saritutako proiektuak eta enpresak: AEDAS Homes, MUY, Aidearte, Avocado, Belvedere Agency, bombaiworks, burutu, EKOHOGAR, EITB, Evenire, LIN3S ≡ Consultora Digital, Mediattack Creative Agency, Metalúrgica MARINA | Mecanizados, calderería y soldadura PANARAMA, P4Q, PKF Attest, ROS, Shyncrica, SIROPE | Agencia Creativa, Think On Marketing, Videoriders, WEROI, Worköholics, Zorraquino.



# Claudia Goldin,

## Ekonomiako Nobel Sariduna 2023an

*Ekonomia eta Enpresa  
Fakultateko Berdintasun  
Batzardea*



Argazkia: Harvard Unibertsitatea. Claudia Goldin. Ekonomiako Nobel Saria 2023

Claudia Goldinek jaso du 2023ko Ekonomiako Nobel Saria, lan merkatuko genero desberdintasunei buruz egindako ikerketengatik. 1969az geroztik 93 pertsonak jaso dute Ekonomiako Nobel Saria, eta horietatik hiru dira emakumeak. Lehen aldiz eman diote sari hau emakume bati, modu indibidualean.

**Ekonomiako Nobel Saria** jaso du 2023an **Claudia Goldinek**. Suediako Bankuak Alfred Nobelen oroimenez zientzia ekonomikoen arloan ematen duen saria da. Hala, lan merkatuko genero desberdintasunei buruz egindako lanaren garrantzia aitortu diote. Haren ibilbide akademikoan egindako lanen artean, ibilbide profesionalean zehar emakumeek eskuratzen duten ordain-saria gizonak jasotzen dutena baino baxuagoa dela ondorioztatzen duen azterlana nabarmentzen da. Honako hau da ondorio nagusietako bat: emakumeek etxeko lanetan eta zaintza lanetan arduratzen direla eta enpresek haien prestasuna eta aurrez aurrekotatzea eskatzea dira gizonen eta emaku-

meen soldata desberdintasuna azaltzen duten faktore nagusiak. Ondorio horiek agerian uzten dute beharrezkoa dela politika publikoetan eta enpresen antolakuntzan aldaketa sakonak martxan jartzea, eta zaintza lanetan gizonak eta emakumeak erantzunkideak izan daitezten aurrerapausoak ematea.

Era berean, azken bi mendeetako datu estatistikoak aztertu ditu. Datu horiek erakusten dutenez, emakumeek lan produktiboan duten parte hartzeak U forma du Estatu Batuetan. Emakumeen denboran zeharreko enplegu tasaren azterketak erakusten duenez, ezkondata egon arren, ohikoa zen emakumeek nekazaritzan edo familiako beste enpresa mota batzuetan lan egitea. Emakumeek artizan industrietan ere egiten zuten lan, hala nola ehungintzan edo esnekien industrian. Baina haien lana beti ez zen zuzen kontabilizatzen erregistro historikoetan. Hainbat datu base erabilia, emakumeek lan merkatuan izandako parte hartzeari buruzko datuak zuzendu zituen Claudia Goldinek, eta frogatu zuen haien parte hartzea askoz ere handiagoa izan zela errolda historikoetan kalkulaturakoa baino. Izan ere, errolda haiek ez zuten zehaztasunik, eta ezkonduetako emakumeak "emazte" edo "etxeko andre" gisa sailkatzen zituen, industrian eta/edo nekazaritzan lan egiten zuten jaso gabe.

Hala, 1990az geroztik, Claudia Goldin Harvard Unibertsitateko irakaslea da, eta Harvardeko eta Pennsylvaniako Ekonomia sailetan postu finko bat lortu zuen lehen emakumea izan zen. Ikerketaren fokua genero desberdintasunetan jartzen laguntzen dute haren argitalpenek, eta horrekin lotutako errealitate konplexua hobeto ezagutzea ahalbidetzen du, besteak beste. Horrek guztiak, gainera, azpimarratu egiten du Ekonomia eta Enpresa Fakultateek haien prestatuntza programetan arlo horretako irakasgai espezifikoak txertatzearen beharra. Gaia aztertzea ahalbidetuko luke horrek, eta ikasleek kontuan izango lituzkete oraindik egiteko dagoen bidea eta emakumeen eta gizonen arteko be-

netako berdintasuna lortzeko ezarri beharreko neurriak.

Ekonomiako Nobel Sariari dagokionez, haren historian zehar, 1969tik gaur arte, 93 pertsonak jaso dute sari hori. Horietatik hiru baino ez dira izan emakumeak, eta emakumezko ekonomialari baten lana modu indibidualean aitortu duten lehen aldia izan da honakoa.

2009an, sari hau jaso zuen lehen emakumea bilakatu zen **Elinor Ostrom**, gobernantza ekonomikoaren arloan egindako lanagatik, batez ere, ondasun komunekin lotuta. Haren ikerketak erakusten duenez, baliabide naturalak elkarrekin erabiltzen direnean, denborarekin arauak ezartzen dira horiek zaintzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko, bai ekonomiaren ikuspegitik, bai ekologiararen ikuspegitik. Hortaz, alde batera uzten du baterako kudeaketak gehiegizko ustiapena eta baliabide natural horien desagerpena dakartzan ideia. **Oliver E. Williamson** ere saritu zuten urte hartan. Sari hori jaso zuen bigarren emakumea Esther Duflo izan zen. 2019an saritu zuten, **Michael Kremer** eta **Abhijit Banerjee**ekin batera, munduko pobrezia aurka borroka egiteko ikuspegi berri bat ezartzera bideratuta egin zuten lanagatik. Ikerketaren alderdi nagusiak galdera txikiagoetan eta maneia garriagoetan banatzean oinarritzen da ikuspegi hori. Hala, informazioa eskuratzeko diseinaturako esperimentuak jar daitezke martxan, eragin zuzena jasaten duten pertsonen azterketan oinarrituta.

Laburtuz, oso albiste ona da Claudia Goldinek Ekonomiako Nobel Saria jaso izana lan merkatuko genero desberdintasunei buruz egin dituen ikerketengatik. Izan ere, emakumeek ekonomiaren esparruan egindako lanak aitortzen laguntzen du, lan horiek akademian, lan merkatuan edo etxean egin dituzten kontuan hartu gabe.

Informazio gehiago: <https://www.nobelprize.org/prizes/economic-sciences/2023/popular-information/>

# SARRIKO

**Ekonomia eta Enpresa Fakultatea    Facultad de Economía y Empresa**



emari ta zabal 2021  
Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL